

ENPRESEN NETWORKING-a - SMART INDUSTRY: *Industrian EIKTak sustatzeko lankidetza*

JARDUNALDIA • ENPRESEN NETWORKING-a • DOAKOA • 2026ko martxoak 26 (8:30 – 16:35)

Iberdrola Dorrea - Euskadi Plaza, 5 -48009 Bilbo (Bizkaia)

Enpresen Networking-a - Smart Industry kongresua **Espezializazio Teknologikoko Lurralde Sareen Programaren** (RETECH) barruan kokatzen da, **EBren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren** (NextGenerationEU) esparruan. Erakundeen arteko lankidetza sustatzeko ekimen gisa, helburu honekin: **Adimen Artifiziala** eta elektronika, informazio- eta komunikazio-teknologiak (EIKTak) prozesu produktiboetan integratzea, enpresetan **Industria Adimenduna** garatzeko apustu gisa.

Kongresuaren xedea da enpresetan **Adimen Artifiziala** eta **EIKT berriak** sustatzea. Hori lortuko da **sektore anitzeko topaketa** bat antolatuz, errealtate industrial berri hau ardatz izanik.

Nork parte har dezake?

a) Hainbat **Sektore industrialetan (automobilgintzan, aeronautikan, energia-sektorean, makina-erremintan, eta abarretan)** diharduten EAEko enpresek, baldin eta gaur egun dituzten enpresa-beharrei aurre egiteko EIKT-enpresen zerbitzuak behar dituztenak **Industria Adimendunaren** arloan. Hauek batez ere, **Adimen Artifizialaren** ezarpenean oinarrituko dira, baina gainerako **EIKT berriak** baztertu gabe (*Gehikuntzazko fabrikazioa, Elkarlaneko robotika, Sistema ziberfisikoak, Errealitate areagotua, Ikusmen artifiziala, Errealitate birtuala, Cloud Computing, Big Data, Zibersegurtasuna*).

b) **EIKT-sektorean** diharduten enpresek, baldin eta sektore bereko eta/edo hainbat industria-sektoretako beste enpresa batzuekin harremanetan jarri nahi dutenak, **Industria Adimendunaren** arloan egon daitezkeen lankidetzak zehazteko helburuarekin.

Parte hartzen duen enpresa bakoitzak **bilera-agenda pertsonalizatu** bat izango du, eta bi fase hauetan gauzatuko da:

- Parte hartzen duten enpresen eskaerak abiapuntu.
- **Bi aldeek adostutako** Matchmaking-prozesu bat.

Agenda

8:30 – 9:15 Harrera egitea eta dokumentazioa ematea

9:15 – 9:30 Ongietorria eta kongresuaren aurkezpena, **Elixabete Garcia**, Eusko Jaurlaritzako Eraldaketa Digitaleko Zuzendariaren eskutik.

9:30 – 9:45 TEIC sektorea, NEXT eraldaketa-estrategien zerbitzura, **Tomás Iriondo**, GAIako Zuzendari Nagusiaren eskutik.

9:45 – 11:00 Hausnarketa-guneak: *“Gure enpresetan Industria Adimenduna garatzearen alde”*

Hainbat industria-enpresak beren enpresetan AA nola aurre egiten, jorratzen, aplikatzen eta hartzen ari diren azaltzeko esperientziak partekatzeko guneak.

- **Nagore Rodríguez eta Ariana Roman, Dpt. of Technology & Sustainable Development - Betsaide**
- **Jon Ezkerra, I+G proiektuen koordinatzailea - CIE Automotive taldea**
- **Ruben Alvarez, ITko arduraduna eta Marta Ratón, Plant Manager - Draxton Atxondo**

11:00 – 11:30 Etenaldia – Kafea eta Networking-a

11:30 – 13:00 Aldebiko topaketak. *Negozio-bilerak, alde aurretik ezarritako agendaren arabera*

13:05 – 14:10 Luncha – Networking-a

14:10 – 16:35 Aldebiko topaketak. *Negozio-bilerak, alde aurretik ezarritako agendaren arabera*